

# BIODIBERTSITATEA

## mantentzeko jardunbide egokiak



1. Gure inguruko landareak eta animaliak ezagutu eta errespetatuko ditugu, beraz, ez ditugu loreak hartuko, ez animaliak zirikatuko ezta lorategiak zapalduko ere.

2. “Zuhaiztatu” zaitez kanpainan parte-hartuko dugu eta norberak bere zuhaitza ezagutu eta babestuz.

3. Eskola eta geletako landareak denon artean zainduko ditugu.

4. Uso, kaio, ahateei ez diegu janaririk botako, gehiegi ugaritu daitezke eta arazoak sortu eta bestalde, txori habiak pakean utziko ditugu.

5. Gure irteeretan zakarrontzirik ez badugu topatzen, gure zaborrak gurekin ekarriko ditugu bueltan eta gune bakoitzean dauden hiri-altzariak errespetatuko ditugu.

6. Kanpotik ekarritako animaliak ez ditugu maskota bezala erosiko. Eta jada ditugunekin aspertzen bagara, edozein lekuetan ez ditugu botako (adibidez, dordokak eta arrain gorriak erreketan eta parketako urmaeletan ez askatu).

7. Txakurra dugunok, pasiera ateratzean bere hondakinak jasoko ditugu.

8. Udalak antolatuko balu ekintzaren bat eskola orduetan, adibidez erreka garbiketa, saiatuko gara parte hartzen.

9. Gurasoekin batera Donostiako parkeak bisitatu, horrela ezagutu eta errespetatuko ditugu eta ahal bada inguruneko parke naturalak ere.

10. Ikasitako senitartekoei jakinaraziko diegu.

